

“Oso argi daukat ‘mertzenario’ bat naizela”

Itziar Ituño | Fagor-eko langile ohia

Beti oinak hurrean dauzkalako hasi zen soziologia ikasketak egiten. Burugogorra delako bukatu zituen. Inplikaturik bezain lotsatia, Fagor-eko lanpostu finko bati uko egin, eta Arraldeko ertzainburua da egun.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Dani Blanco

Ertzainburu guztiak lotsatiak balira...

Lotsatiok atera beharreko gauza mordoak daukagu gordeta. Aktoetza terapia hutsa da.

Terapia batzuk oso garesti irteten dira.

Aktore izateko apustua egiteko oso seguru egon behar da eta ni oso pertsona insegurua naiz. Ez dut sekula “aktore izango naiz” esan, apurka-apurka etorri zaizkit gauzak.

Eta etortzen ez direnean...

Aspertu egiten zara. Nekatu. Ez dakizu nondik heldu, zelan... Une gogorrak dira.

“Madrilerat banüazü” kantatzeko bezain gogorrak?

Gogorra da zure herria utzi eta emigrante bat izatea. Hau herri txikia da baina material itzela dago. Diru laguntzak orekatzea litzateke kontua, apustua egitea gauza berri, apurtzaile, eta alternatiboen alde.

Alternatiba subentzionatua?!

Historioak kontatzen duenaren arabera jartzen da dirua. Artistek erabaki behar dute zer kontatu nahi duten, ez botereak. Hori da askatasuna, baina ez dagoenez...

Beharrik ETAr buruzko film serio bat egiteko garaia den.

Bat ez, ETAr buruzko pelikula eta antzerki asko egin behar dira. Ikuspegi guztietatik ikusita. Batzuek ez daukate kontatzeko aukerarik ere.

Baina antzerkia ez al zen ongi pasatzeko?

Lehen antzerkia aldatetaren aitzindaritzaz zen, tabuen normalizaziorako tresna. Gaur egun, geroz eta garrantzi gehiago ematen zaio saltzeari. Merkantilizatuta dago.

Business is business my friend!

Egon ahal da kontsumorako ona den artea, baina gaur egun kontsumorako saltzen dena penagarria da.

Penagarriagoa da alternatibarik eza.

Begira zer gizarte motatan bizi garen! Dena dago salgai, dena erosten da, dena kontsumitzen da... Zerbait aldatzen duten lan desberdinak ez dira ongi jasotzen, ez gaudelako ohituta.

Horregatik joaten da jende gutxi antzokira?

Gure esku dago, guk hurbildu behar dugu herrira. Agian formula aldatu eta kale-antzerkia egin behar dugu, bat-batekoa, domeka batean, poteo orduan...

Eta jendea deseroso utzi?

Bai, deseroso, buruari bueltaka sentimendu batekin... Arrastorik uzten ez duen antzerkia arteik oso urrun dago.

Eskerrak batzuen ustez dena primeran doan!

Produktoreen aldean bazaude diplomatikoa izan behar duzu. Nik oso argi daukat *mertzenario* bat naizela, eta egun batean zerbait sortzen badut artea sortu nahi dudala. ■